


# Hezkuntza Edukiak, No 10, Artikulua.

## Topografia.

Autoreak: Amag!

Gure gorputzak bezala, gure luraren geografia ere gorabeherez beteta dago. Askotan, ez da erraza azalera horizontal bat aurkitzea. Arkitekturan, orekan dagoen azalera hori aurkitzen saiatzen gara beti, eraikin berri bat hasteko. Bada zientzia bat, topografia izenekoa, luraren azalera aztertzen duena eta haren aldaketa guztiak aintzat hartzen dituena, hala nola mendiak, ibaiak, lakuak... eta lurraldearen ezaugarri horiek guztiak jasotzeko mapa zehatzez baliatzen da.

Orain guk... gure topografia koloretsua sortuko dugu! Horretarako, Shibori artearen teknika erabiliko dugu. Teknika hori papera edo oihal bat tolestean eta tindatzean datza, eredu geometriko eder eta koloretsuak lortzeko.



### Materialak:

A4 papera, ur koloreak, grapagailua.

### Urratsak:

- 1- Tolestu A4 papera eta eraldatu akordeoi batean.
- 2- Tolestu paper zerrenda triangeluetan, eta errepikatu ekintza hori, hainbat paper tolestu eduki arte.
- 3- Orain, sartu papera gustukoen dituzun koloreetan. Garrantzitsua da tolestutako formaren alde bakoitzarekin egitea.
- 4- Destolestu papera eta utzi lehortzen.
- 5- Eman bolumena! Paperaren laua topografia koloretsu bihurtzeko, tolestu paperak Shiboriren toledura koloretsuei jarraituta, eta finkatu ageri den forma grapagailuaren laguntzaz.

Amag